BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

4116

EBAZPENA, 2019ko irailaren 2koa, Ondare eta Kontratazioko zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretuaren proiektua.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2019ko irailaren 2ko Aginduaren bidez, aurretiazko onarpena eman zaio Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretuaren proiektuaren testuari.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan zehazten denez, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrak entzunaldi-izapidetik pasa beharko dira. Halaber, xedapenen izaera aintzat hartuta komenigarria baldin bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Horretarako, kontuan harturik xedapenaren izaera eta herritarrengan izango duen eragina, beharrezko ikusten da proiektua jendaurrean jartzea, 20 egun balioduneko epean.

Ondorioz, Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen dituen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuaren 8. eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea, Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretuaren proiektua, 20 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Aurreko zenbakian aipatu den proiektuaren espedientea kontsultatu ahal izango da, lehen adierazitako epean, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ogasun eta Kontratazio Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (www.euskadi.eus). Egin nahi diren alegazioak, agiriak eta frogagiriak epe eta leku berean aurkeztu ahal izango dira, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehazten dituen lekuetan ere, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari zuzenduta.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 2a.

Ondare eta Kontratazioko zuzendaria,
DAVID ÁLVAREZ MARTÍNEZ.